

Arcelor Mittaleko eta Billabesako langileek greba mugagabea eginen dute uztailaren 1etik aurrera

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 26/06/2025

Apirilean jakinarazi zuen enpresak Legasako eta Aguraingo lantegietan 40 langile kanpora bidali nahi dituela. Bestetik, Billabesa gidariekin hitzarmen kolektiboaren negoziazioan aurrera egin nahi dute.

Arcelor Mittalek Agurainen (Araba) eta Legasan (Nafarroa) dituen faktorieta langileen batzarrek "ia aho batez" erabaki dute greba mugagabea hasia uztailaren 1etik aurrera, apirilean iragarri zuten enplegu-erregulazioko espedienteak (EEE) salatzeak. Espediente horren ondorioz, 40 langile kaleratuko dituzte gutxienean kalte-ordaina emanda eta Legasako lantegia itxiko dute. ELA sindikatuaren arabera, "prozesu osoan agerian gelditu da enpresa ez dela gai izan arazoak justifikatzeko. Aurkeztutako dokumentazioa ez da nahikoa izan beraien asmoak eta espedientearen beharra esplikatzeak. Beraien inkoherentziak maiz gelditu dira agerian".

Bestalde, Billabesako gidariekin ere greba mugagabea eginen dute uztailaren 1etik aurrera. Billabesa Iruñerrian dagoen hiriko autobus sarea da eta gaur egun TCC MOVENTIS enpresak zerbitzua kudeatzen du. TCC MOVENTIS enpresako Enpresa Batzordeak salatu du enpresako zuzendaritzak ez duela hitzarmen kolektiboaren negoziazioan aurrera egiteko benetako proposamenik egin. Enpresak ustezko eskaintzak aurkeztu ditu, beteko ez direla dakiten edo egiaztatu ezin diren baldintzen arabera. "Hau ez da negoziatzea: akordioa kontzesio faltsuen bidez blokeatzea da", salatu dute langileek. Negoziatioan aurrerapausorik eman ez denez, langileek greba mugagabea hasi behar izan dute uztailaren 1etik aurrera, San Fermin jailetako zerbitzuari eraginez. Batzordeak ulermena eskatu die herritarrei, eta gatazkaren erantzukizuna enpresarena baino ez dela adierazi du.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/arcelor-mittaleko-eta-billabesako-langileek